

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA: MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA

Lan eremuko lanbide nagusiak:

Mekanizazio bidezko produkzioko teknikaria. Produkzioaren plangintzako teknikaria. Metodo eta denboretako teknikaria. Makina eta sistemen programazioko teknikaria. Kalitate-kontrolako teknikaria. Lantegi-burua.

Funtzioak, gaitasun orokorra

Mekanizazio bidezko produkzio-prozesua (txirbil-harroketa, konformazioa eta mekanizazio bereziak) eta ekipo mekanikoen produkzioa eta muntaia programatzea, antolatzea eta zeregin hauetan lankidetzan jardutea, fabrikazioa lagunduz eta, dokumentazio tekniko abiapuntu izanik, sistema automatikoak programatuz; hau guztia beheragoko maila duten teknikariei behar duten euskarria eskainiz.

Moduluak (ikasgaiak)

Fabrikazio mekanikoko kalitate-kontrola
Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuen definizioa
Mekanizazio-, konformazio- eta muntaia-prozesuen exekuzioa
Hizkuntza teknikoa
Fabrikazio mekanikoan erabiltzen diren materialak
Fabrikazio mekanikoen industrietako segurtasun-planak
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
Fabrikazio mekanikorako zenbakizko kontrolako makinen programazioa
Fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa
Lan-giroko harremanak
Lan-prestakuntza eta -orientabidea
Lantokiko prestakuntza

Lanbide koalifikazioak

[FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PLANGINTZA](#)

[FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA](#)